

**OÑATIKO UDALA ETA ELKARZABAL INTEGRAZIORAKO ELKARTEAN ARTEKO
LANKIDETZA HITZARMENA, ZAURGARRITASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEN
PRESTAKUNTZA ETA LANERATZEA SUSTATZEKO.**

BILDU DIRA

Izaro Elorza Arregui, NA zenbakia ***9634** duena, esku hartzen du Oñatiko Udalaren (P2006300D) ordezkari gisa.

Jesus Maria Aramburu Raymond, NA zk. ***6488** duena esku hartzen du Elkarzabal Integratzaile Elkartearen (G75119628) ordezkari gisa.

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan hartuta jarraian azaltzen diren

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Elkarzabal Integratzaile Elkarteak pertsona migratzaileen integrazioa xede duen irabazi asmo gabeko elkarte da. 2014an sortu zen Oñatin, Caritasen ekimenez eta bere helburuak elkartearen bazkide eta beraien senideen oinarritzeko beharrik asetzea, enplegu sorrera eta formakuntza helburu duten jarduerak garatzea eta bide batez bazkide eta senideen integrazioa erraztea dira.

Bigarrena.- Oñatiko Udaleko Sozioekonomia Sailaren helburu nagusietako bat herriko garapen sozio-ekonomikoa indartu eta enplegua sustatzea da. Norabide horretan, zaurgarritasun egoeran dauden edota laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonengan arreta berezia jartzeko beharraz jabetuta, kolektibo bereziei laguntzeko baliabide, proiektu eta programa zehatzak zehaztu ditu udalak.

Hirugarrena.- Bi erakundeek helburuak bat egiten dute zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen enplegarritasunaren eta kualifikazioaren aldeko estrategiak garatzeko eta beharrezko neurriak ezartzerako orduan, eta hitzarmen honen bidez elkarlanean jarduteko konpromisoa berresten dute, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzeko sustatzen jarraitzeko.

Laugarrena.- Elkarzabal Integratzaile Elkarteak dirulaguntza eskaera egin dio Oñatiko Udalari 2023 ekitaldiko ekintza plana garatzeko. Ekintza plan horrek 2021 eta 2022 urteetan EDE Fundazioarekin batera egindako hausnarketa prozesuan eta bertatik eratorritako ekintza proposamenetan dauka oinarria. Bertan jasotzen dira gaur egun Elkarzabal elkarteak kudeatzen dituen zaintza zerbitzua eta ortua proiektuak garatzen jarraitzeko proposamenak eta proiektu horietan jarduten duten pertsonen gaitasunak hobetzeko prestakuntza ekintza ezberdinak.

Bosgarrena.- Oñatiko Udalak Elkarzabal Integraziorako elkarteari bideratuko dion dirulaguntzak elkartearen eta udalaren arteko elkarlanean dauka oinarria. Bi erakundeen arteko lankidetzak funtsezkoa da Oñatin zaurgarritasun egoeran aurkitzen diren pertsona migratzaileen egoera sozioekonomikoa hobetzeko.

Seigarrena.- Eskaerarekin batera 2023ko ekintza plana aurkeztu du Elkarzabalek elkarteak eta bertan zehazten dira ekitaldian zehar elkarteak garatuko dituen ekintzak. Besteak beste honako hauek izango dira:

- Prestakuntza jarduerak:
 - o Zaintza arloan, Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan profesionaltasun-ziurtagiria. (2 ikastaro)
 - o Nekazaritza arloan: Nekazaritzako jarduera osagarriak.
- Zaintza eta Ortua proiektuen birdiseinua, garapena eta profesionalizazioa.

Zazpigarrena.- 2023ko Sozioekonomia Saileko udal aurrekontuetan izendatuta dago Elkarzabal Integrazio Elkartearentzako 20.000 euroko diru partida bat, 1000.480.241.05.01 zenbakia duena eta elkartearen 2023ko ekintza plana garatzera bideratzea aurreikusita dagoena.

Zortzigarrena.- 2023ko martxoaren 16an Oñatiko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen Elkarzabal Integraziorako Elkarteari dirulaguntza ematea eta bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena sinatzea, elkartearen 2023ko ekintza plana garatzeko.

Horrela beraz, azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, erakunde biek

HITZARTZEN DUTE:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak gehienez ere 20.000€ arteko dirulaguntza emango dio Elkarzabal Integraziorako elkarteari, 2023ko ekintza plana garatzeko.

Bigarrena.- Elkarteak 2023an jasandako gastuen %100 finantzatzeko erabili ahal izango da dirulaguntza, betiere aurkeztutako gastuak ekintza planarekin lotura badute eta jarraian zehazten den muga aintzat hartzen bada:

- Dirulaguntza hau bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere, gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan udalak emandako dirulaguntza zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarteak izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Hirugarrena.- Dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa aurreikusitako ekintzak amaitzen direnean zehaztuko da edo beranduen 2023ko ekitaldiaren amaieran. Horretarako elkarteak ekintzen memoria eta diru sarrera eta gastuen justifikazioa aurkeztu beharko ditu.

Laugarrena.- Oñatiko Udalaren dirulaguntza era honetara ordainduko da:

- Dirulaguntzaren %50, hau da, 10.000€, hitzarmena sinatzen den momentuan.
- Dirulaguntzaren gainontzeko zenbatekoa, gehienez ere %50a osatu arte, ekitaldiaren amaieran memoria eta zuriketa ekonomikoa aurkeztu eta udalak onarpena emandakoan.

Bostgarrena.- Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko du Elkarzabal Integraziorako Elkarteak:

- Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria.
- Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira aurkeztutako gastuak justifikatzen duten ziurtagiriak. Adibidez, Jaso izanaren agiriak elkartearen zigiluarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailearen izen-abizen, NA zenbaki eta sinadurarekin.
- Elkartearen diru sarreraren azalpenak eta horren egiaztagiriak:
 - o Diru laguntzen ebazpena edo ordainketaren agiriak.
 - o Bazkideen kuoten ordainagiriak.
 - o Beste diru sarrerarik balego, horren justifikazio dokumentala.

Seigarrena.- Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko. Elkarzabal Integraziorako Elkarteari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

Eta ados daudela adierazteko, bertaratuek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, Oñatin, 2023ko martxoaren 17an.

IZARO ELORZA ARREGUI
OÑATIKO UDALA

JESUS MARIA ARAMBURU RAYMOND
ELKARZABAL INTEGRAZIORAKO
ELKARTEA